

Itsasoko berbak Lekeition

Gaur egun, herri-euskerak aztertu eta kaleratzea puri-purian dagon honetan, Lekeition hiztegitxo espezifikoak hasi dira kaleratzen

Mixel Kaltzakorta Mentxaka |

Lekeitioko udalak, ikusita berta-bertako berbak galtzen doazala belaunaldirik belaunaldi, erabagi dau, bertako hiru alderdi politikoek aho batez onartuta, berreskuratu baharra dagozala. Horretarako, Lekeitioko berbak izeneko taldea sortu dau, eta honek hainbat batzar eginda, lehenengo frutua emon dau: *ITSA-SOA Lekeitioko berbak (1)*.

Ezohiko hiztegia da. Batetik, 25 orri baino besterik ez dauko; bestetik, 38 berba baino ez; eta azkenez, eta garrantzitsuena: berba bakotxa, ondo ulertuteko, irudiren batez jantzita dator. Berba batean esateko, berbakuntza alderdiari besteko garrantzia emon jako alderdi pedagogikoari. Izan be, eskoletako neska-mutilei zuzenduta dago. Hona hemen berba batzuk, politenak-edo:

Atezu

Esangura bi ditu: lehenengoan, erreferentzia egiten deutso barkuak amarralekuari lotzeko erabilten sokeari, adierazoteko zelako egoeran dagon: tentsioan, ia apurtu beharrean. Bigarrenean, pertsonen aplikatuten jako, beraren egoera baten barri emoteko: estu, larri dagonean. Aitaturiko egoeran barkuak eta pertsonak ez eze beste gauza batzuk be egon leitez. Hona adibide bat primerakoa: *Patxi, (alkondarearen) botoi horreek atezuan dagoz*.

Tanke

Portuetako-eta ur gaineko burdinazko amarralekuak dira (zehatzago esateko: ziran). Esakera batean be erabilten da, inogaz haserretuz gero: *Heure amaren tankea (edo tan-gea)*. Tankeak esan gura dau emakumearen tripa handia seindun dagonean.

Tuntuxa

Buia klase bat da, bertan apariaren sokea batzeko. Baina bigarren esangura batean

OKERRAK ZUZENTZEN

Hau guztiau, lehenago lez

OKER

- * *Guzti honek* nahaste itzela eragin deust.
- * *Guzti hori* amaitzen dozunean, beste honegaz hasi behar dozu.

ARTEZ

- *Honek guztione*k nahaste itzela eragin deust.
- *Hori guztia* amaitzen dozunean, beste honegaz hasi.

Oharra: Erakusleak izenaren atzetik erabili behar dira euskera batuan. *Guzti* eta *dana* zenbatzaile orokorrekin, barriz, aurretik erabili behar dira.

hau sarri egiten da portu eta igerilekuan. Beste esangurak, lehenengotik-edo eratorrita, esan gura dau gaztelaniazko *lanzarse, estirarse*. Hona adibide bi, bigarren esangurakoak, zein baino zein politagoak: *Porteru hori abila da dzapart egiten, Atzetik etorri eta dzapart egin eustan lepora*.

Dzapartada

Dzapart egitea adierazi nahi dau. Hona adibide polita: *Athletiko porteruak zelako dzapartadak egiten dauz ba!*

Hondurea

Uraren sakonerea adierazoten dau, eta ez bestelako sakonerarik.

Dzingoa

Berba honek be uraren sakonerea emoten dau aditzen, baina txikia (sakonereak ez legez). Adibideetan bat: *Hemen ez dago dzingorik dzanga egiteko*.

Oreka

Berba honek indarra hartu dau euskera batuan, ahoz zein idatziz, eta danok dakigunez, gaztelaniazko *equilibrio* esan gura dau. Baina esanahi hau ez dau berezkoa, ezpabere eratorria; edo, hobeto esateko, batzuek asmatua, egoki asmatua, ikusita zelako arrakastea izan daben. Berezko esanahian aditzen emoten dau itsasontzi edo txori batzuen egoera jakin bat: itsasontziak nasai, bare dagoz itsasoan, ez dago-eta ez olaturik, ez tirainik; txoriak be geldi-geldian dagoz aidean, ez batera ez bestera, zirkinik egin barik.

Gangila

Berezko esanguran adierazoten dau (itsasoan-eta erabilten dan) plataforma antzeko zer edo zer garabi bat dabela. Erabilten da (edo zan) portuetan-eta honduko harriak eta basak aterateko. Esanahi eratorrian aditzen emoten dau bizitasun bako pertsona, arranke bakoa, gauzak ganora gitxigaz-edo egiten dabena (benetako gangilak legez).

adierazoten dau andrearen tripatzarra umedun dagonean (*Zelako tuntuxa dauko ba!, gixi falta jako botadurarako*).

Deslai

Esanahi bi daukaz: batean, itsasontzien egoera baten barri emoten dau, eta bertan noraezean dabil, nora jo edo zuzendu ezinean itsasoak eraginda. Beste esanguran, lehenengotik hartua, pertsonen egoera jakin bat emoten dau aditzen: norea galduta dabilenean, mozkorrak eraginda edo beste arazoren batek.

Dzanga egin

Uretara salto egiteko modu bat da: buruz behera eta hankak luze dirala. Hona, berbarako, adibide bat: Moilatik dzanga egitea gus-tatzen jat.

Dzangada

Dzanga egitea da. Hona hemen, konparaziorako, adibide bi politikak: *Mutikotan beti ibiltengin dzangadaka, Dzangada batzuk egin-da joan nintzan etxera*.

Dzapart egin

Esangura bi badaukaz behinik-behin: batak esan gura dau salto egitea uretara hankaz gora (hankak luze gora dirala). Salto klase

LUKARTE

ARIZKURRINAGA HEMEN ETA MUNDUAN-EKOA



JOSU ETXEBARRIOSTE

«Ni neu oso bizkaiera zalea naz»

Mikel Basabe | BILBO

Munduko herri boteretsuek Genoa goi bilera egiten dabela eta, hainbat alkartek antolatu ditue protesta ekitaldiak; Hemen eta Munduan-ek be bai. Alkarte horretako kide da Lukarne Arezkurrinaga.

■ Orokorrean pentsau, eta bertokoan esku hartu. Euskeraz egiten dozue?

Batzarrak eta, euskeraz egiten doguz, euskaldunen artean bagabilz. Erdaldunak egon ezker, orduan erderara jotzen dogu.

■ Eta, materiala sortu?

Guk sortzen dogun guztia, euskeraz be badago. Batzuetan, baina, kanpotik jasoten dogu materiala, eta hori erderaz egoten da. Berba, ganera, bizkaitarrok bizkaieraz egiten dogu. Ni neu oso bizkaiera zalea naz.

■ Hitzaldiak-eta zelan egiten dozuea?

Herriaren arabera izaten da hori. Herri euskaldunetan, jakina, euskeraz egiten dogu, baina Bilbon, esate baterako, gaztelaniaz izaten dira. Dana dala, hitzaldiak eskatzen deuskuezanek esan egiten deuskue zein hizkuntzatan gura daben.

■ Euskerearen aldeko diskriminaziorik egiten dozue?

Zelan egiten da hori? Nik esan neikizu guk beti egiten dogula euskeraz: herri erdaldunetan emon beharreko berbaldietan be, sarrerea euskeraz egiten dogu, eta sortu beharreko guzti-guztia be euskeraz emoten dogu. Dana dala, errealidadeak be zehazten dau hizkuntzearen erabilera zelakoa izango dan: gutako batzuek ez dakie euskeraz, baina dan-danok daukagu aldeko sentisibildadea.

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Unai Elorriaga

Neurribagaco desonestidadia

Munduba galduta dauana ta ya inoc iraun ezin davena Escritura Sagradubac lecu ascotan esango espaleuscu bere, gueuc sarri esaten dogun gauzia da, neure entzula onac. Gueuc esaten dogu casic isildu bagarik cristinauben artian daua pede chaarra, compiantza guichi, codicija asco, malecija andija, munduco gaueen amodio itsuba, inoren gaueen invidija, alcar icusi ezina, panparrerija, vanidadia, ocasinioac, entzute chaarra, murmuracinoia, neurribagaco desonestidadia, pecatubaren bildurric-eza ta conciencia arinonac. Gach oneec eta gueijago cristinauben artian ugari dagozana guztioac autor doguna da. Ya esan guinai David erre-guiagaz, gente guztia vide zucenetati apar-

tau dala ta gauza ona eguin gura davenic inor bere ez daua. Edo San Juan Evangelistiaz, mundu guztia malecijaren ta gacharen gañian iminita daua.

Oh, ceinbat estimauc litzaatequian gach oneec erremedijetia! Ta menturaz ez da ascoc uste daven baisen obra gacha mundubaren erremedijetia. Bacoachac beretzaco ona dan moduban, edolabere erremedijau lei. Baña onetaraco, ezautu bihar dau cristinaubac lelengo, cegaiti daucan edo cetati jatorcon mundubari ain ichura ezaña ta errucarija. Ta au da dotrina onetan lelengo eracutsico dodana; ta güero esango da, celan erremedijau leijan bacoachac berari toquetan jacona.

I

Exodoco liburuban Espiritu Santubari entzuten deusadan verba batzuc iracurten ditudan guztian, neure entzula onac, icara eguiten deust vijotzac. Irugarren ta laugarren belauneraño, dino Jangoicuac, castigauco ditubala gurasuac umeen contra eguiten dituben pecatubac. Gurasuac umeen contra eguiten dituben pecatubetati andijena dala deichat, cristinaubac, guztiz engañetan ezpanas, umiac dongaro aztia.

'Idazlan guztiak I' liburutik jasoa.

Egilea: Frai Bartolome Santa Teresa.

Argitaletxea: Euskaltzaindia.